

## Kutxabanken zuzendaritzako ardura duten postuen % 54 emakumeek betetzen dute

- **2020tik Taldean sartu diren pertsonen % 71 emakumeak dira**

**2023ko martxoaren 8an.** Emakumeek Kutxabankeko zuzendaritzako ardura postuen % **54** osatzen dute, hau da, saileko arduradun edo bulegoetako zuzendari edo zuzendariorde dira.

Azken urteotan etengabe hazi da emakumeen presentzia ardura-postuetan. Izan ere, 2020tik Erakundeak sustatu dituen lanpostuen % **59** emakumeek hartu dituzte, Kutxabanke lanbide-garapenerako aukerak eskaintzeko orduan duen konpromisoaren erakusle, diskriminazio egoerarik ez dela sortzen bermatzeko konpromisoa baitu.

Gaur egun, Kutxabankeko plantillan dauden **3.338 pertsonetatik % 63,4 emakumeak** dira. Kalitatezko enplegua sortzeko helburuarekin eta talentua erakartzeko eta atxikitzekeko estrategiaren baitan, Erakundeak **200 gazte** baino gehiago kontratatu ditu azken hiru urteetan, eta horietatik % **71** emakumeak dira.

### **Berdintasunarekiko konpromisoa**

Genero berdintasuna eta ikuspegia Kutxabanken Misioan, Ikuspegian eta Balioetan txertatuta daude eta, beraz, Erakundeak maila guztietan **zeharkako presentzia** duten kontzeptuak dira.

Halaber, lan-harremanetan aukera berdintasuna bermatzen jarraitzen du eta lana eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko hobekuntzak egiten jarraitzen du. Gainera, Kutxabankeko langileen artean berdintasunaren inguruan **sentsibilizatzeko ekintzak** bultzatzen hasi da Erakundeak, prestakuntza eta informazio jardueren bidez.

Hala nola, 2022an zehar, Erakundeak langileen zati batek berdintasunaren inguruko informazio eta sentsibilizazio prestakuntza egin zuen.

Era berean, Kutxabankentzat lan egiten duten **enpresa hornitzaileen artean trakzio-eginkizuna** du Bankuak, eta berdintasuna sustatzen duten erakundeekin ere elkarlanean aritzen da, gizartearentzat genero-ikuspegia gero eta ageriagoa izan dadin.

Joan den maiatzean CEBEK-en, Bizkaiko Enpresa Konfederazioaren "**Enpresan Bardin Gran Empresas**" saria jaso zuen Kutxabanke. Sari honek lan-esparruan emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna sustatzeko egindako ekintzengatik enpresen lana goretsi ohi du.